

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

8/2017 Foru Araua, apirilaren 12koa, martxoaren 28ko 3/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko dena, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergarekin lotua

Arabako Batzar Nagusiek, 2017ko apirilaren 12an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

8/2017 Foru Araua, apirilaren 12koa, martxoaren 28ko 3/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko dena, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergarekin lotua.

HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, martxoaren 28ko 3/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergarekin lotua.

Aipaturiko 8. artikuluko 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Biltzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Biltzar Nagusietako Osoko Bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Biltzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikuluen arabera, bidezkoa da aipatutako Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

ARTIKULU BAKARRA. Baliozkotuta geratu da martxoaren 28ko 3/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergarekin lotua.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilaren 12a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA